

Vladimir I. Lenin

Leo Tolstoi Errusiar Iraultzaren ispilu*

Leo Tolstoy as the Mirror of the Russian Revolution

Itzulpena: Ane Azkuenaga Duran

204



Hasiera batean arraroa eta artifiziala irudi lezake iraultza ulertu ez duen artista handia, eta argiki honetatik at mantendu dena, beraurekin identifikatzea. Gauzak zuzen islatzen ez dituen ispilua nekez dei daiteke ispilu. Gure iraultza, hala ere, kontu erabat konplikatua da. Hori egiten eta bertan parte hartzen ari den masatik egon badago, zalantzarik gabe, gertatzen ari dena ulertu ez duten hainbat elementu sozial eta gertaeren norabideak aurrez aurre egokitu zaizkien betebeharrak historiko errealetatik kanpo ere mantentzen direnak. Eta gure aurrean benetako artista handi bat badugu, bere lanean iraultzaren funtsezko aspekturen bat islatu izan du, behintzat.

Tolstoiren laurogeigarren urtebetetzearen inguruko artikuluz, gutunez eta iruzkinez gainezka egindako legezko Errusiar prentsak oso interes urria du bere lanak Errusiako iraultzaren eta bere oinarrizko indarren posiziotik aztertzeko. Prentsa hau guztia hipokresiaren goragalearekin bustita dago, mota bikoitzeko hipokresia: ofiziala eta liberala. Lehenengoa, atzo Leo Tolstoi jazartzea agindutako idazle¹ eroserraza eta gaur Tolstoi abertzale bezala erakusten duena, eta Europako begien aurrean begirunea behatzeko saiakera. Ezaguna da mota honetako idazleak euren diatribarako ordaindu dituztela eta ezin dute inor limurtu. Askoz ere finagoa eta, horrenbestez, kaltegarriagoa eta arriskutsuagoa hipokresia liberala da. *Rech-en* Cadet Balalaikins² entzuterakoan, batek pentsatuko luke beraien Tolstoirenganako sinpatia erabatekoa eta sutua dela. Benetan, beraien deklamazio kalkulatuak zein “Jainkoaren bilatzaile handia”-ren inguruko esaldi hantustek hasieratik bukaeraraino gezurra dira, ez baitago Tolstoiren

* Honakoa Leninek kulturaren inguruan 1908an, Genevara joan ostean, *Proletary* aldizkarian argitaraturiko artikulua da. Testu honetan, 1905-07ko iraultzaz ari da eta, Tolstoiren laurogeigarren urtebetetzearen ingurumarietan, Leninek errusiar idazlearen eta berauren lanek eta doktrinak prentsan izandako eragina aztertzen eta kritikatzeko du. Zehazki, idazlearen ikuspuntua eta une horretan errusiar gizartean izandako garrantzia du hizpide. Idazlearen ikuspegiaren bi aldeak argitara ateratzen ditu: errusiar bizimodua irudikatzen zuen jenioa eta, ifrentzuan, gaizkiaren aurka ez egitearen iritzia.

Hemen aurkeztutako euskarazko itzulpena Ane Azkuenaga Duranek egin da.

¹ Idazleren zentzua hemen iraingarria da.

² *Balalaikin*- Saltykov-Shchedrinen *Idilio Moderno* nobelaren pertsonaia, hitzontzi, abenturazale eta gezurri liberala da.

jainkoan sinesten duen errusiar liberalik, edo Tolstoik existitzen den ordena sozialaren inguruan egindako kritikarekin bat egiten duena. Gezurra izen ezagun batekin lotzen da kapital politikoa areagotzeko asmoz, nazio-mailako oposizioaren liderraren itxurak egiteko; hark, eskandaluaren eta zalapartaren zentzugabekeriarekin, galderaren erantzun zuzen eta argi baten erregua itotzea bilatzen du: zeintzuk dira “Tolstoismoaren” kontraesan liluragarrien kausa, eta gure iraultzaren zein muga eta ahulgune adierazten dituzte?

Tolstoiren lanen, ikuspuntuen, doktrinen, bere eskolan dauden kontraesanak, egiazki, liluragarriak dira. Alde batetik, artista handia dugu, errusiar bizimoduaren irudi konpara ezinak marraztu dituen jenioa ez ezik, mundu-mailako literaturara lehen mailako ekarpenak ere egin dituena. Beste alde batetik, Kristorekin obsesionatutako errentatzailea dugu. Alde batetik, faltsukeria sozialaren zein hipokresiaren aurkako protesta nabarmenki boteretsua, zuzen eta zintzoa; eta beste aldetik, “Tolstoitarra”, hau da, kexati gogaitua, histerikoa, errusiar intelektual deiturikoa, publikoki bere bihotza eta lantua jotzen dituena: “Gizon gaizto, maltzur bat naiz, baina auto-perfekzio morala praktikatzen ari naiz; jadanik ez dut haragirik jaten, orain arroz txuleta jaten dut”. Alde batetik, esplotazio kapitalistaren urrikirik gabeko kritika, gobernuaren basakerien, auzitegi erridikuluaren eta estatuko administrazioaren erakusketa, eta aberastasunaren hazkundearen eta zibilizazioaren lorpenen eta langile klasearen pobreziaren, degradazioaren eta miseriaren hazkundearen arteko kontraesanak. Beste aldetik, menderatzearen sermoi zoroa, biolentziarekin “ez iezaiozu gaizkiari kontra egin”. Beste alde batetik, errealismorik neurridunena, maskara ugarien eta guztiak bereiztea; beste aldetik, munduan gehien gorrotatutako gauzetako baten sermoia, zehazki, erlijioa, ofizialki izendatutako apaizak konbikzio moraletik lan egiten duten apaizengatik aldatzeko saiakera, hau da, finena lantzeko eta, hortaz, klerikalismorik nardagarriena, bereziki. Egiazki:

Zu zara behartsu bat, baina zu zara oparo,

Zu zara fuerte, baina zu zara indarge—

—Ama Errusia!³

Tolstoik, kontraesan hauengatik, ziurrenik ezin zituen langile-klasearen mugimendua eta bere papera sozialismorako borrokan, edo Errusiar Iraultza ulertu, esan gabe doa. Baina Tolstoiren ikuspuntuetan eta doktrinetan kontraesanak ez dira ustekabekoak; hemeretzigarren mendeko azken hereneko errusiar bizimoduaren baldintza kontraesankorrek adierazten dituzte. Landa eremu patriarkala, duela gutxi

³ N.A. Nekrasov-en poematik: “Nor izan daiteke zoriontsu eta libre Errusian?”.



joputzatik emantzipatua, literalki kapitalistei eta zerga-biltzaileei emana zitzaien lumatzeko eta arpilatzeke helburuarekin. Laborarien ekonomiaren eta bizimoduaren oinarri zaharrak, mendeetan zehar iraun zutenak, aparteko azkartasunarekin mila pusketetan hautsi ziren. Eta Tolstoiaren ikuspuntuaren kontraesanak ezin dira gaur egungo langile mugimenduaren ikuspuntutik eta gaur egungo sozialismotik baloratu (horrelako balioespena beharrezkoa da, noski, baina ez da nahikoa), baizik eta garatzen ari den kapitalismoaren kontrako, beraien lurra kentzen ari dieten masen porrotaren kontrako protesten ikuspegitik –Errusiako landa eremu patriarkaletik sortu behar zen protesta bat. Tolstoi gizadia salbatzeko *nostrum* berriak deskubritu dituen profeta moduan absurdua da– eta, beraz, ez du merezi bere doktrinaren alderdirik ahulena dogma batean bihurtzea bilatu duten atzerriko zein Errusiako “Tolstoitarrez” hitz egitea. Tolstoi handia da Errusian iraultza burgesa gertu zegoen garaian, milioika nekazari errusiarren artean loratu ziren ideien eta sentimenduen bozeramaile bezala. Tolstoi originala da, bere ikuspuntu guztien batuketa, osotasun bezala hartuta, gure iraultzaren ezaugarri espezifikokoak laborari burges baten iraultza bezala azaltzen baititu. Ikuspuntu honetatik, Tolstoiaren ikuspegiaren kontraesanak, hain zuzen ere, gure iraultzan bere paper historikoa bete behar zuten nekazarien baldintza kontraesankor horien isla da. Alde batetik, opresio feudalez betetako mendeak eta bizkortutako erreforma osteko pobretzeaz betetako hamarkadak gorrotoarekin, erresuminarekin, eta determinazio etsigarriarekin pilatuta. Eliza ofiziala guztiz ezabatzeko saiakera, errentatzaileak eta errentatzaileen gobernua, lur-jabetza forma eta mota zahar oro suntsitzeko, lurra garbitzeko, polizia-klase estatua nekazari libre eta berdineko komunitate batengatik ordezteak—saiakera hau da gure iraultzan nekazalgoak hartutako pausu historiko bakoitzaren gakoa; eta, zalantza barik, Tolstoiaren idazlanetako mezua bat dator nekazarien saiakera honekin, “Anarkismo Kristau” abstraktuarekin baino gehiago, bere iritzien “sistema” batzuetan baloratuta baitago.

Beste alde batetik, nekazalgoak, bizimodu berrien saiakeran, bizitza izan beharko litzatekeenaren ideia oso gordin, patriarkal, erdi-erlijiosoaren zuen, esfortzuaz askatasuna lor zitekeen, zein lider izan litezke gatazka honetan, zein zen burgesiaren eta burges intelektuaren jarrera nekazal iraultzaren interesekiko, zer dela eta beharrezkoa zen tzar arauaren indarrezko uzkaileak latifundismoa abolitzeko. Nekazalgoaren aurreko bizimodu osoak lurduna eta ofiziala gorrotatzen irakatsi zuen, baina ez zuen, eta ezin zen, irakatsi non aurkitu galdera hauentzat guztientzat erantzuna. Gure iraultzan nekazalgoaren zati oso txiki bat borrokatu zen, helburu honetarako nolabait antolatu ziren; eta oso zati txiki batek etsaiak, tzarren zerbitzariak

eta errentatzaileen babesleak akabatzeko armak hartu zituen. Nekazalgoaren gehiengoak negar eta otoitz, zentzatu eta amestu egin zuen, eskakizunak idatzi eta “defentsariak” bidali zituen— Leon Tolstoiren moldean eta, kasu hauetan beti gertatzen den moduan, eta politikan Tolstoitar abstentzioaren eragina, politikari uko egite Tolstoitar hau, politikan interes ez hau, gutxiengo batek bakarrik jarraitu zuen klase-kontzientziadun proletargo iraultzailea; aldiz, gehiengoa moralik gabeko, lausengari burges intelektual horien harrapakin bihurtu zen, zeinek kadeteen izenean Stolypinen atarian Trudoviken bilera bat aurreratu zuten, eta erregutu, tratua egin, adiskidetu eta adiskidetzeko promesa egin— *jackboot* batekin egotzi zituzten arte. Tolstoiren ideiak ahuldadearen isla dira, gure nekazari-matxinadaren gabeziak, landa-eremu patriarkalaren eta “mujik berritzailearen” koldarkeria zurrunaren gainbeheraren isla bat.

Har itzazu 1905-06 bitarteko soldaduen matxinadak. Antolaketa sozialean, gure iraultzan borrokatutako gizon hauek nekazariak eta proletarioak ziren. Proletarioak gutxiengoa ziren; hortaz, armadako mugimenduak ez du proletargoak erakutsitako elkartasun nazional berdina, talde-kontzientzia berdina erakusten, zeinak esku mugimendu batekin sozialdemokrata bihurtu ziren. Hala ere, ez dago armadako matxinatuek huts egin zutela gidatu zituen ofizialik ez zutelako pentsatzea baino akats handiagorik. Kontrara, *Narodnaya Volyaren*⁴ garaitik iraultzak emandako izugarritzko aurrerapausoa izan zen “saldo grisa” bere nagusien aurka armetan altxatu zela, eta bere auto-mendekotasunak errentatzaile liberalak eta ofizial liberalak beldurtu zituen. Soldadu arruntak nekazalgoaren kausarekin bat egin zuen guztiz; bere begiak lurraren aipamenarekin argitu ziren. Kasu batean baino gehiagotan, armadako autoritateak mailaren eta soldadutzaren masa pasatu zuen, baina autoritate honen erabilera determinatua nekez burutu zen; egun pare baten ostean, soldaduek zalantza egin zuten; kasu batzuetan, ordu batzuen ostean; ofizial gorrotagarriren bat hil ostean; atxilotutako besteak aske uzten zituzten; autoritateekin hitz egin eta, ostean, fusilatze-pelotoiari aurre egin zioten; edo urkiaren atzean biluztea, edo berriz uztarrria jartzea— Tolstoiren moldean!

Tolstoik erreprimitutako gorrotoa, zori hobe batengatik borroka umoa, iraganaz libratzeko desira islatu zituen— baina baita amets heldugabea, esperientzia politikorik eza, ahuleria iraultzailea ere. Baldintza historiko eta ekonomikoek masen hastapenetako borroka iraultzailea eta borrokarako prestakuntza eza azaltzen dituzte;

⁴ *Narodnaya Volya (Jendearen nahia)* — Narodniketako intelektualek autokrazia borrokatzeko helburuarekin 1879an sortutako pentsamendu iraultzailearen legez kanpoko antolakunde bat. Laurogeigarren hamarkadako bigarren erdira arte existitu zen.



bai eta beraien Tolstoitar gaizkiarekiko erresistentzia eza, zeina lehenengo kanpaina iraultzailearen porrotaren arrazoirik serioenetakoa baitzen.

Esaten dute garaituak izan diren armadek ondo ikasten dutela. Argi dago klase iraultzaileak armadekin oso zentzu mugatuan aldera daitezkeela. Kapitalismoaren garapena orduro aldatzen ari da eta milioika nekazari ernatu zituen baldintzak biziagotzen ari dira—errentatzaile feudalistenganako eta bere gobernuarenganako gorrotoak batuta—borroka iraultzaile-demokratikoagatik. Nekazalgoaren artean, trukearen, merkatuko arauaren areagotzea eta diruaren boterea etengabe patriarkalismo zaharra eta Tolstoirtar ideologia patriarkala uzkaile ari ditu. Baina, zalantzarik gabe, iraultzaren hasierako urteetako eta masen borroka iraultzailearen lehenengo ezbeharren gaineko irabazia dago. Masen iraganeko gozotasun eta ahuldadean eragiten duen kolpe hilgarri bat da. Demarkazio lerroak desberdin bihurtu dira. Klaseen eta partiduen zatiketa gertatu da. Stolypinen irakaspenen mailukadekin eta sozialdemokrata iraultzaileen etengabeko agitazioarekin ez bakarrik proletargo sozialista, baizik eta nekazalgoaren masa demokratikoak ere inoiz baino indartuago aterako dira. Gure Tolstoismoaren bekatu historikoan erortzeko aukera gutxiago izango duten borrokalariak!